

## **JEAN BAPTISTE ELISSAMBURU, OLERKARI GOZOA**

Jean Baptiste Elissamburu, lur elkorra asetzen duen euri gozoa bezala, fruitua zoritzen duen eguzkiaren ukitu beroa bezala, ezarian-ezarian gure herriaren muin-muineraino heldu da.

Azkenez, herriaren izpiritua bereganatua zuen olerkariak, ahapaldi xume eta txairoetan ondurik, herriari itzuli dio bere emaitz joria. Izan ere, saratar olerkaria aipatzean, aspaldiko ezaguna dugula ohartzen gara. Hainbat kanta xamurretan heldu zaigu Iparralde nahiz Hegoaldeko euskaldunoi haren olerki-sena. Hala ere, Euskal Herrian, olerkaria bera baino ezagunago da haren emaitza, herri-kanta hunkigarrien itzalean gorderik gelditu bait da egilearen izena. Jon Etxaidek ongi adierazten digu hau *AMASEI SEME EUSKALERRIKO* deritzon liburuan: «bere olerkien gurasotasuna galdu baitu, esate baterako, erriak maiteki ostuta».

### **Haren bizitza eta lanaz zenbait ilunune**

Esan dezagun lehen-lehenik, Antonio Maria Labayen izan dela saratar olerkariaren bizitza eta lana sakonkien aztertu duena. Gainerako gehienak hau aipatzen dute eta zordun zaizkio.

Saran, Piarresenea baserrian jaio zen, 1828.eko abuztuaren 14ean. Michel Elissamburu eta Juane Irazabal-en semea. Haren



heriotzeko dataz izan da zalantzarik, edo eta hobeki esan, oker ulertze batek eragindako errakuntzarik.

J.A. Arana Martijak, Azkue Bibliotekako Artxiboan dauden jaiotza eta heriotzeko agiriez baliaturik, behin betiko argiturik uzten du auzi hau (ikus Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. 3-4. 1986). Bi data hauek izan dira eztabaidagai: batzuk 1891.eko urtarrilaren 2an hil zela esaten zuten; beste batzuk, berriz, 1891.eko abenduaren 31n hil zela. J.A. Arana Martijak dioenez, azken data hau da zuzena eta ez bestea. Nahastearen iturburua, Wenworth Webster jaunak egin zuen nekrologia laburrean omen da. Hor, 1892.eko urtarrilaren 2an ehortzi zutela Elissamburu, esaten da; eta 1891ean hil zela zekitenek, Webster jaunak 1892a aipatzean huts egin zuelakoan,

urtarrilaren 2a jartzen dute heriotzeko eguntzat. Beraz, hil zen eguna eta ehortzi zuten eguna nahastean sortu zen okerra. Baina 1891.eko abenduaren 31n hil zen eta, Webster jaunak zioen bezala, 1892.eko urtarrilaren 2an ahortzi zuten. Inork oraindik zalantzarik balu, jaiotza eta heriotzeko agiriak hitzez hitz jarri dizkigu J.A. Arana Martijak aipaturiko lantxo horretan.

Beste ilununetxo bat, haren olerkitzat daudenetarik, zeintzuk diren egiaz eta ziur harenak erabakitzeko zailtasunean datza, L. Villasantek, bere HISTORIA DE LA LITERATURA VASCA liburuan, Labayen-ek hogeitahiru olerkiren egiletzat jotzen duela Elissanburu, baina hainbat gehiagorena ere izan daitekeela dio. F.B. Larzabal ez da eritzi berekoa. PIERRES LAFITTE-RI OMENALDIA IKER-2 liburuan hala dio:

«Bai ote? Eta kontrarioa balitz? Funtsean, balitzik ez da, problema bakarra da hogeitahi ta hiru horietarik zein diren egiazki gure saratarrarenak». Uste eta irudipenik ez du onartzen ikertzaile honek, frogak baizik. L. Villasantek eta Estornes Lasak iturri beretik edan dute: A.M. Labayenen iturritik, baina F.B. Larzabalek dioskunez, «bai Louis Dassance zenak eta bai Piarres Lafittek oinarri horren azpia zilatzen hasia dute».

F.B. Larzabalek berak ere, Labayenek Elissambururen olerkitzat jotzen dituen batzu harenak diren, zalantzan jartzen du. Hobeki aztertu beharreko auzia dela uste du. Ez du esaten harenak direnik, ezta ez direnik ere; batzu, Elissambururenak direla esateko frogarik ez dugula, besterik ez.

«Elissambururen obrak direla erraten ahal dugu, bere bizi denboran hala agertu direnak. Lan horiek bere izenaz edo izen ordeaz izenpetuak dira. Baina, zoin izen orde? Labayenek zortzi bederen ematen dizkio: «Harluxe», «Saratar bat», «Piarres Adame», «Darrupe-Harluz», «Doyarzabal», «Sallaberry», «Lewy d'Abartiague», «Ziburuko Xantrea».

Izenorde guzti hauetarik, Elissamburuk ofizialki erabili zuenik, bat besterik ezin daitekeela frogatu: «Piarres Adame». Louis Dassancek esana aipatu, izenorde hori, Jean Baptiste haurra zela, Elissambururen familia bizi izandako Sarako bi etxeren izenetatik etor liteke, «Piarresenean» eta «Adametan» egona bait zen.

F.B. Larzabalek honako hauek ematen ditu Elissambururen lan ziurtzat: «Nere etxea edo laboraria», «Apexa eta lorea», «Maria», «Gizon zuhurra», «Agur herriari», «Aingeru bati», «Lehen eta orai», «Eskuara eta Eskuafidunak», «Maite zaitut», «Biba Frantzia», «Xori berrikeraria».

Labayenen zerrendako beste bi aipatzen dizkigu gero: «Lau andre pesta» eta «Eskalduna». Lehenari buruz zera dio: «Ez dugu erraten ahal Elissambururena dela. Ez ukatzen ahal ere. Frogak ikus eta sinetsiko». Bigarrenari buruz, badaude lekukotasun batzu, baina guzti horiek ez dute argi uzten, ikertzaile honen eritziz, harena denik... Azken batez, Labayenen zerrendatik ziurrak ez diren guztiak ez dituela kenduko, esaten du, baina Labayenen lanak eta harengan oinarrituek bakanaldi eta jorreketa on bat behar luketela bai.

### **Hartaz eman izan diren eritziak**

Koldo Mitxelena, Antoine d'Abbadie-k antolatutako olerki-lehiaketen harian, hainbat bertso-idazle aipatzen dizkigu; hauen artean, Luzaideko Joan Etxamendi «Borddele», Larralde «Bordatxuri», Sarako Agustin Etxeberri, Bidarraiko Oxalde, Guilbeau, Larralde, Diharassary. Duvoisin kapitaina ere noizbait aurkeztu omen zen. Olerkiak joera zaharrekoak edo tradiziozkoak zirela diosku Mitxelena. Bertso-idazle aski on eta kulto hauekin ez dela nahasi behar, uste du Mitxelena, Jean Baptiste Elissamburu olerkaria, hau ere behin eta berriro lehiaketa hauetara aurkeztu eta saritua izan arren.

Elissamburu hizkuntzaren benetako maisua eta bertso-gile aparta zen, haren eritziz. Osó fina, literatur haziera onaren jabea,

errejistro ugari izanik guztiak egoki eta erraz erabiltzen zekiena. Maite-kanta eta emakumearen lilura adieraztean bere tertzioan, baina Etxepare eta Oihenart-ez geroztik ohizko ez zen era jator eta naturalean, aritzen da. Hala ere ez du, Bilintxek bezala, barne-sentipen samurrik adierazten. Bihotz maitemindua, kontsolamendurik gabeko negarra, izpiritu zauritua... olerkietan agertzea, bere buruari debekaturik edo izan behar zuen.

PIARRES ADAME elaberri laburrari buruz, Lafonentzat paregabea zela, dio K. Mitxelenak, euskal literaturan berdintzerik ez zuena. Irakurri baino lehen, hizkuntzagatik esango zuela hori, uste zuen Mitxelenak, hark euskararen gainean zuen nagusitasuna nabaria bait da, baina irakurritakoan, «bat nator orain Lafonekin», dio errenteriar jakintsuak.

Jon Etxaidek, AMASEI SEME EUSKALERRIKO izeneko liburuan dioen atalxo bat ezarriko dut orain, hitzez hitz:

«Elizanburuk, itz-neurtuetan ez-ezik itz lauz ere landu zun gure euskera eta idazle zaharretan, -berrialdi atarian bada ere-, au dugu ezpairik gabe, bai bertso ta bai prosari erri mintzairaren kutsurik garbiena erantsi diona eta bere lan guzitan euskal-senaren barru-barruraino murgildu zaigun gizona. Onetxegatik izan dute ain arrera bikaiña Elizanbururen olerkiak euskaldunetan, euskal jario garbikoak diralako, euskal arnasaren sormen, euskal gogamenetan dezaten atsedean».

Eta aurreraxeago, Elissamburu poeta bukolikoa dela batez ere, dio, eta horregatik harridura agertzen du, armadan hainbeste urte igaro zituen poetak nekazaritza, artzaingoa eta baserriko bizitza baketsua hautatzea kantagaitzat.

Azkenaldean haren ezten fina goraiatzan du. PIARRES ADAME elaberri laburraren 3. kapituluan datorren pasarte eta bertsoa aipatzen dizkigu. Bide zaharraren ondoko errekan, hiru emazteki ikusi zituen bokata jotzen (lixiba egiten). Hiru haietarik

bik jantzia belaunez gainetik pixka bat jaso omen zuten, «bainan ez modestia sobera kolpatzeko gisan?» Hirugarrenak, berriz, mehe eta luzea bait zen, jantzi beltz batez estaliak eta gordeak zituen aztalak. Piarresek ziri-bertso polit hau kantatu zien:

«Egun ni naizenean Azkainat hurbildu,  
Hiru Graziak naute bidean gelditu;  
Biek erakutsiak batek gorde ditu...  
Ez zituen gordeko ederrak balitu...»

Luis Villasantek, prosista nahiz poeta bikain-bikaintzat du. XIX. mendeko poetarik onena, agian, edo bere adiskide Adema «Zaldubi»rekin hortxe-hortxe.

Hona Santi Onaindiak MILA EUSKAL OLERKI EDER liburuan dioena:

«Euskal iturri garbian edan eban, ta ari bai dariola czti gozoa!».

Haren heriotzeko mendeurrenean gaudenez gero, saratar olerkariaz lan xume hau gauzatu dut, irakurle, zuretzat eta neure buruarentzat. Oraingoan inoren uretan eta azal-azalean ihardun dut arrantzan eta gauza handirik eskuratu gabe etsi behar. Hurrengo batetan, aipamenetan galdu gabe, neure-neuretik, haren olerkien ikerketatxo bat burutzeko irrika biztu zait hala ere.

*Luis Baraiazarra Txertudi*